Sin./Fdo.: FRANCISCO JAVIER ARNAIZ ALONSO DE LECIÑANA 2025-01-22
KUDEAKETA ADMINIST.ETA HITZARTURIKO INBERTSIOAK BIDERATZ. AT
JEFE/A SECCIÓN GESTIÓN ADMINISTRAT. E INVERSIONES CONVENIDAS

Sin./Fdo.: PILAR TRUEBA FERNANDEZ 2025-01-22
BIDEEN SEGURTASUN.,HOBEKUNTZA,MODERNIZAZ. ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE SEGURIDAD VIAL, MEJORA Y MODERNIZACIÓN

Sin./Fdo.: JOSE MIGUEL DE LA FUENTE CASADO 2025-01-22
AZPIEGITURAK GARATZEKO ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE DESARROLLO DE INFRAESTRUCTURAS

Sin./Fdo.: AITOR ETXEBARRIA ATUTXA 2025-01-22
LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Sin./Fdo.: CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA - 2025-01-23
AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2025-01-30
GZko 15.gaia onartuta - Aprobado, asunto 15) de OD



**ERABAKIA,** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmenaren aldapena onartzen duena, «N240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektua». izeneko lanak egiteko.

**ACUERDO** por el que se autoriza la modificación del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Alava para la ejecución de las obras del “Proyecto de construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240”.

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.34 artikuluan eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluko a) letrako 8. puntuan xedatutakoaren babesean, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru organoei ematen die errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki, aldarazi, finantzatu, erabili eta ustiatzeko eskumen esklusiboa.

I.- En virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 7a) punto 8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, se atribuye a los órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautaketa, antolaketa, erregimena eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. artikuluak, Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkion eskumenak arautzen ditu.

La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, regula en su artículo 17 las competencias que corresponden a la Diputación Foral de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2023ko otsailaren 7ko erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena onartzen da, «N240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektua». izeneko lanak egiteko.

Mediante acuerdo de 7 de febrero de 2023 del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, se autoriza la celebración de convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Alava para la ejecución de las obras del “Proyecto de construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240”.

Bizkaiko Batzar Nagusiek isilbidez berretsi dute

Este acuerdo es ratificado tácitamente por

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erabaki hori, ondore horretarako epea oposiziorik/aldaketarik egin gabe igaro delako. Izapidetzeko onartzeko erabakia Batzar Nagusietako Mahaiak hartu zuen, 2023ko otsailaren 14ko bilkuran; erabakia Bizkaiko Batzar Nagusietako 53 a) zenbakiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2023ko otsailaren 17an.

Juntas Generales de Bizkaia, por el transcurso del plazo sin formular oposición/modificación. El acuerdo de admisión a trámite se adoptó por la Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 14 de febrero de 2023, acuerdo publicado en el Boletín Oficial de Juntas generales de Bizkaia nº 53 a) de 17 de febrero de 2023.

Beste alde batetik, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 136/2023 Erabakiaren bidez *"240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektuaren"* barruko obrak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea onartu zen eta aipatutako lankidetza-hitzarmena berresteko Foru Arauaren Proiektua onetsi zen.

Por su parte, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava 136/2023, de 21 de marzo, se aprobó la suscripción del Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Álava para la ejecución de las obras del *"Proyecto de Construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240"*, y se aprobó el Proyecto de Norma Foral de ratificación del referido convenio de colaboración.

Martxoaren 29ko 12/2023 Foru Arauaren bidez, Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute "240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektuaren" barruko obrak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza-hitzarmena. Aipatutako foru araua 2023ko apirilaren 14an argitaratu zen (ALHAO, 44. zk.).

Mediante Norma Foral 12/2023, de 29 de marzo, se ratifica por las Juntas Generales de Álava el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Álava para la ejecución de las obras del proyecto de construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240. La citada Norma Foral fue publicada el 14 de abril de 2023 (BOTHA Nº 44).

Obrak egin ondoren, ondore horretarako deitu zen Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen 1. bileran, Azken Ziurtagirian lehen aipatutako zenbatekoez gain beste zenbateko bat ere jasotzen dela nabarmendu da. Zenbateko hori 107.921,33 eurokoa da, BEZa barne.

Una vez ejecutadas las obras se ha puesto de relieve en la sesión nº 1 de la Comisión de Seguimiento del Convenio, convocada a tal efecto, que la Certificación Final incluye un importe adicional a las cantidades anteriormente mencionadas. Ese importe asciende a 107.921,33€ IVA incluido.

2024ko azaroaren 4ko Batzorde horretan azken ziurtagiriaren zenbatekoa bi alderdien artean banatzea erabaki zen, Hitzarmenaren bigarren klausulan adierazitako proportzio berean. Honela, banaketa honako hau izango litzateke:

En la citada Comisión de fecha 4 de noviembre de 2024 se acuerda repartir el montante de la certificación final entre ambas partes en la misma proporción señalada en la cláusula segunda del Convenio. De tal manera que el reparto sería el siguiente:

| ERAKUNDEA<br>ORGANISMO | HANDIPENA<br>AUMENTO |
|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Bizkaia | 53.159,41 € |
| Arabako Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Álava | 54.761,92 € |
| **GUZTIRA BEZa barne<br>TOTALES IVA incluido** | **107.921,33 €** |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Jarraipen Batzordearen bilera horretan bertan Hitzarmena aldatzea proposatzen da, bertan honako alderdi hauek jaso daitezen:

- Lurralde bakoitzean egindako obren kostu osoa bere gain hartzea.
- Azken ziurtagiriaren bidez onartutako zenbateko gehigarriari aurre egiteko behar den kreditua.
- Aurrekontu-gehikuntzen aurreikuspena, obren zuzendari fakultatiboaren iritziz berme-aldian eta hura amaitu ondorengo sei hilabeteetan beharrezkoak diren lanei aurre egin ahal izateko.

En esa misma sesión de la Comisión de seguimiento se propone la modificación del Convenio para que el mismo contemple los siguientes aspectos:

- La asunción del coste total de las obras ejecutadas en los respectivos territorios.
- El crédito necesario para hacer frente al importe adicional aprobado mediante la Certificación Final.
- La previsión de incrementos presupuestarios para poder hacer frente a los trabajos que, siendo necesarios a juicio del director facultativo de las obras, se realicen durante el periodo de garantía y los seis meses siguientes a la finalización del mismo.

III.- Hori dela eta, bi administrazioen interesak bakoitzaren eskumenen ikuspuntutik koordinatzeko xedearekin, lankidetza irizpideak aplikatuz, ahalik eta modurik eraginkor eta ekonomikoenean jokatuz, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan, horrekin bat datozen gainerako manuetan eta aplikatu behar diren arauetan ezarritakoari jarraituz, lankidetza hitzarmen bat sinatu behar da, herri administrazioen artean sinatzen diren hitzarmenak (kasu honetan bezala) arautzen dituen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluari jarraikiz, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluaren 1. paragrafoan, lege horren eremutik kanpo utzitako hitzarmenak adierazten dituena, xedatutakoa betez.

III.- A tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de ambas Administraciones desde el punto de vista de sus respectivas competencias atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones Públicas resultan del artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y del artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, resulta preciso formalizar un convenio de colaboración, de acuerdo al artículo 47.2. a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, que regula los convenios que se suscriben entre las Administraciones Públicas, como es el caso, y en cumplimiento de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, que señala los convenios excluidos del ámbito de la citada Ley.

## ERABAKIA

Lehenengoa.- Baimena ematea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmenaren aldapena onartzeko, «N240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektua». izeneko lanak egiteko. Horren testua I. ERANSKIN gisa

## ACUERDO

Primero.- Autorizar la modificación del convenio de colaboración, entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Araba para la ejecución de las obras del "Proyecto de construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240", cuyo texto se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eransten da.

adjunta como ANEXO I.

Espedientea aurretiaz izapidetzeko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da ekitaldian, sortzen diren betebeharrak finantzatzeko.

La tramitación anticipada del expediente queda sometida a la condición de la existencia de crédito adecuado y suficiente en el ejercicio para financiar las obligaciones que se generen.

Bigarrena.- Finantza-ekarpena, gehienez, BERROGEITA HAMAHIRU MILA EHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEI TA BAT zentimoko (53.159,41 €). ekarpena egiteko, 2025eko aurrekontu ekitaldiaren kontura. Aurrekontuko partida honen kargura ordainduko da:

Segundo.- La aportación financiera por importe máximo de CINCUENTA Y TRES MIL CIENTO CINCUENTA Y NUEVE EUROS CON CUARENTA Y UN CENTIMOS (53.159,41 €) con cargo al ejercicio presupuestario 2025, se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria :

Ekonomikoa: 62106
Programa: 453113
Zentro kudeatzailea: 1003
PEP: 2008/0062

Económico: 62106
Programa: 453113
Centro Gestor: 1003
PEP: 2008/0062

Hirugarrena.- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuari ahalmena ematea Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari lankidetza-hitzarmen hau formalizatzeko, bai eta hura garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ere.

Tercero.- Facultar al Ilmo. Sr. Diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para formalizar en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia el mencionado Convenio de Colaboración, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.

Laugarrena.- Erabaki hau komunikatzea Batzar Nagusiei berretsi egiteko, duen eraginkortasuna eten egina geratuz izapide horretara, eta baita Hitzarmena egitera ere.

Cuarto.- Comunicar el presente Acuerdo a las Juntas Generales para su ratificación, quedando supeditada la eficacia del mismo a dicho trámite, así como la formalización del Convenio

Hala ere, zeuk ebatziko duzu

V.I. no obstante, resolverá.

Kudeaketa Administratiboa eta Hitzarturiko Inbertsioak bideratzeko Ataleko burua / Jefe de sección de Gestión Administrativa e Inversiones Convenidas. FCO. JAVIER ARNAIZ ALONSO DE LECIÑANA
Bideen Segurtasunerako, Hobekuntzarako eta Modernizaziorako Zerbitzuko burua / Jefa de Servicio de Seguridad Vial, Mejora y Modernización. PILAR TRUEBA FERNÁNDEZ
Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordea / Subdirector de Desarrollo de Infraestructuras. JOSE MIGUEL DE LA FUENTE CASADO
*O.E. / Vº Bº*
Lurralde Garapenerako Zuzendari Nagusia / Director General de Desarrollo Territorial. AITOR ETXEBARRIA ATUTXA
Aurreko tramitearekin bat, helaraz bekio Gobernu Kontseiluari. / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.
Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru Diputatua / El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENAREN HIRUGARREN KLAUSULA ALDATZEA, 240-ERREPIDEAN UBIDEKO UDALERRIRA SARTZEKO HEGOALDEKO BIDEGURUTZEA BERRANTOLATU ETA HOBETZEARI BEGIRA ERAIKUNTZA PROIEKTUARI DAGOZKION OBRAK EGITEKO.

Gasteizen, 2025ko (e)an

AGERTU DIRA

Batetik, Carlos Alzaga Sagastasoloa jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren foru diputatua den neurrian, horri ordezkatuz.

Eta, bestetik, Jon Nogales Prieto jauna, Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren Sailaren foru diputatua den heinean, horri ordezkatuz.

Agertu direnak, erakundeen arteko harreman guztiek izan behar duten elkarrekiko koordinazio-, lankidetza- eta errespetu-printzipioen esparruan, beren administrazioen izenean, LANKIDETZA HITZARMEN hau egilesteko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta xede horrez honakoak

AZALTZEN DITUZTE

I. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2023ko otsailaren 7ko erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena onartzen da, «N240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektua». izeneko lanak egiteko.

Bizkaiko Batzar Nagusiek isilbidez berretsi dute

MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA PARA LA EJECUCION DE LAS OBRAS DEL "PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE LA REORDENACIÓN Y MEJORA DE LA INTERSECCIÓN SUR DE ACCESO AL MUNICIPIO DE UBIDE EN LA CARRETERA N-240".

En Vitoria-Gasteiz, a de 2025

COMPARECEN

De una parte, el Ilmo. Sr. D. Carlos Alzaga Sagastasoloa, en su calidad de Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia, y en representación de la misma.

Y de la otra, el Ilmo. Sr. D. Jon Nogales Prieto, en su calidad de Diputado Foral de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias, de la Excma. Diputación Foral de Álava, y en representación de la misma.

Los comparecientes, dentro del marco de los principios de coordinación, colaboración y respeto mutuo que deben informar todas las relaciones interinstitucionales, se reconocen capacidad legal necesaria para el otorgamiento de la presente MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN en nombre de sus respectivas Administraciones, y a tal efecto

EXPONEN

I. Mediante acuerdo de 7 de febrero de 2023 del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, se autoriza la celebración de convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Alava para la ejecución de las obras del "Proyecto de construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240".

Este acuerdo es ratificado tácitamente por Juntas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erabaki hori, ondore horretarako epea oposiziorik/aldaketarik egin gabe igaro delako. Izapidetzeko onartzeko erabakia Batzar Nagusietako Mahaiak hartu zuen, 2023ko otsailaren 14ko bilkuran; erabakia Bizkaiko Batzar Nagusietako 53 a) zenbakiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2023ko otsailaren 17an.

Generales de Bizkaia, por el transcurso del plazo sin formular oposición/modificación. El acuerdo de admisión a trámite se adoptó por la Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 14 de febrero de 2023, acuerdo publicado en el Boletín Oficial de Juntas generales de Bizkaia nº 53 a) de 17 de febrero de 2023.

Beste alde batetik, Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 136/2023 Erabakiaren bidez *"240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektuaren"* barruko obrak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea onartu zen eta aipatutako lankidetza-hitzarmena berresteko Foru Arauaren Proiektua onetsi zen.

Por su parte, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava 136/2023, de 21 de marzo, se aprobó la suscripción del Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Álava para la ejecución de las obras del *"Proyecto de Construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240"*, y se aprobó el Proyecto de Norma Foral de ratificación del referido convenio de colaboración.

Martxoaren 29ko 12/2023 Foru Arauaren bidez, Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute "240-errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeari begira eraikuntza proiektuaren" barruko obrak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza-hitzarmena. Aipatutako foru araua 2023ko apirilaren 14an argitaratu zen (ALHAO, 44. zk.).

Mediante Norma Foral 12/2023, de 29 de marzo, se ratifica por las Juntas Generales de Álava el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Álava para la ejecución de las obras del proyecto de construcción de la reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240. La citada Norma Foral fue publicada el 14 de abril de 2023 (BOTHA Nº 44).

II. Hirugarren klausulan, ALDEEN BETEBEHAR ETA KONPROMISO EKONOIKOAK, konpromiso ekonomikoak honako xehetasun hauekin definitzen dira:

II. En su Cláusula tercera, OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ECONÓMICOS ASUMIDOS POR LAS PARTES, se definen con el siguiente detalle los compromisos económicos:

| ERAKUNDEA ORGANISMO | 2023. URTEA AÑO 2023 | 2024. URTEA AÑO 2024 | GUZTIRA TOTAL |
|---|---|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia | 194.147,37 € | 345.361,22 € | 539.508,59 € |
| Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava | 200.000,00 € | 355.772,23 € | 555.772,23 € |
| **GUZTIRA TOTALES** | **394.147,37 €** | **701.133,45 €** | **1.095.280,82 €** |

Obrak egin ondoren, ondore horretarako deitu zen Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen 1. bileran, Azken Ziurtagirian lehen aipatutako zenbatekoez gain beste zenbateko bat ere jasotzen dela nabarmendu da. Zenbateko hori 107.921,33 eurokoa da, BEZa barne.

Una vez ejecutadas las obras se ha puesto de relieve en la sesión nº 1 de la Comisión de Seguimiento del Convenio, convocada a tal efecto, que la Certificación Final incluye un importe adicional a las cantidades anteriormente mencionadas. Ese importe asciende a 107.921,33€ IVA incluido.

2024ko azaroaren 4ko Batzorde horretan azken

En la citada Comisión de fecha 4 de noviembre de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ziurtagiriaren zenbatekoa bi alderdien artean banatzea erabaki zen, Hitzarmenaren bigarren klausulan adierazitako proportzio berean. Honela, banaketa honako hau izango litzateke:

2024 se acuerda repartir el montante de la certificación final entre ambas partes en la misma proporción señalada en la cláusula segunda del Convenio. De tal manera que el reparto sería el siguiente:

| ERAKUNDEA<br>ORGANISMO | HANDIPENA<br>AUMENTO |
|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Bizkaia | 53.159,41 € |
| Arabako Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Álava | 54.761,92 € |
| GUZTIRA BEZa barne<br>TOTALES IVA incluido | 107.921,33 € |

Jarraipen Batzordearen bilera horretan bertan Hitzarmena aldatzea proposatzen da, bertan honako alderdi hauek jaso daitezen:

- Lurralde bakoitzean egindako obren kostu osoa bere gain hartzea.
- Azken ziurtagiriaren bidez onartutako zenbateko gehigarriari aurre egiteko behar den kreditua.
- Aurrekontu-gehikuntzen aurreikuspena, obren zuzendari fakultatiboaren iritziz berme-aldian eta hura amaitu ondorengo sei hilabeteetan beharrezkoak diren lanei aurre egin ahal izateko.

En esa misma sesión de la Comisión de seguimiento se propone la modificación del Convenio para que el mismo contemple los siguientes aspectos:

- La asunción del coste total de las obras ejecutadas en los respectivos territorios.
- El crédito necesario para hacer frente al importe adicional aprobado mediante la Certificación Final.
- La previsión de incrementos presupuestarios para poder hacer frente a los trabajos que, siendo necesarios a juicio del director facultativo de las obras, se realicen durante el periodo de garantía y los seis meses siguientes a la finalización del mismo.

III. Hori dela eta, bi administrazioen interesak bakoitzaren eskumenen ikuspuntutik koordinatzeko xedearekin, lankidetza irizpideak aplikatuz, ahalik eta modurik eraginkor eta ekonomikoenean jokatuz, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluan, horrekin bat datozen gainerako manuetan eta aplikatu behar diren arauetan ezarritakoari jarraituz, bi alderdiek honako LANKIDETZA-HITZARMENAREN ALDAKETA sinatzen dute, herri administrazioen artean sinatzen diren hitzarmenak (kasu honetan bezala) arautzen dituen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluari jarraikiz, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017

III. A tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de ambas Administraciones desde el punto de vista de sus respectivas competencias atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones Públicas resultan del artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y del artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, ambas partes proceden a formalizar la MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN, de acuerdo al artículo 47.2. a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, que regula los convenios que se suscriben entre las Administraciones Públicas, como es el caso, y en cumplimiento de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Legearen 6. artikuluaren 1. paragrafoan, lege horren eremutik kanpo utzitako hitzarmenak adierazten dituena, xedatutakoa betez.

Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, que señala los convenios excluidos del ámbito de la citada Ley.

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

1.- HITZARMENAREN HIRUGARREN KLAUSULA: ALDEEN BETEBEHAR ETA KONPROMISO EKONOMIKOAK

1.- MODIFICACIÓN DE LA CLAUSULA TERCERA: OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ECONÓMICOS ASUMIDOS POR LAS PARTES

Klausula horretan kontratua likidatu arte alderdiek aurre egin beharreko konpromiso ekonomikoei ekiteko beharrezkoak diren estipulazioak jasotzen dira. Horrenbestez klausula honela idatzita geratuko da:

En la citada cláusula se incluyen las estipulaciones necesarias para hacer frente a los compromisos económicos que deben hacer frente las partes hasta la liquidación del contrato. De tal manera que la cláusula queda redactada de la siguiente manera:

Hirugarrena.- Aldeen betebehar eta konpromiso ekonomikoak.

Tercera.- Obligaciones y compromisos económicos asumidos por las partes.

Hitzarmen honen xede den eraikuntza-proiektua lanak egiteko lizitazio-aurrekontua 1.095.280,82 eurokoa da, BEZa barne, eta hurrengo moduan finantzatuko da:

El presupuesto de licitación para la ejecución de las obras del Proyecto de Construcción objeto de este Convenio asciende a la cantidad de 1.095.280,82 € (IVA incluido), el cual será financiado de la siguiente forma:

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila

Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia

539.508,59 €

Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren Saila

Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava

555.772,23 €

Banaketa hau ezarrita:

Con la siguiente distribución:

| ERAKUNDEA ORGANISMO | 2023. URTEA AÑO 2023 | 2024. URTEA AÑO 2024 | GUZTIRA TOTAL |
|---|---|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia | 194.147,37 € | 345.361,22 € | 539.508,59 € |
| Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava | 200.000,00 € | 355.772,23 € | 555.772,23 € |
| GUZTIRA TOTALES | **394.147,37 €** | **701.133,45 €** | **1.095.280,82 €** |

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, dokumentu hau sinatu baino lehen, aurrekontu-kreditu egokiak onartuak daude aurrekontu-izendapena dago hurrengo aurrekontu partidaren kargura:

Respecto a la Diputación Foral de Bizkaia, están aprobados con anterioridad a la suscripción del presente documento, los créditos presupuestarios oportunos, existiendo consignación presupuestaria,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

con cargo a la siguiente partida Presupuestaria:

Ekonomikoa: 62106
Programa: 453113
Zentro kudeatzailea: 1003
APE: 2008/0062

Económico: 62106
Programa: 453113
Centro Gestor: 1003
PEP: 2008/0062

Urteko ordainketen banaketa honekin:

Con el siguiente reparto de anualidades:

2023. urtean: 194.147,37 euro.
2024. urtean: 345.361,22 euro.
GUZTIRA: 539.508,59 euro

Año 2023: 194.147,37 euros.
Año 2024: 345.361,22 euros.
TOTAL: 539.508,59 euros

5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluaren arabera, gastua egiteko, baldintza hau bete beharko da: dagokion ekitaldian kreditu nahikoa eta egokia egon beharko da dekretutik eratortzen diren betebeharrak finantzatzeko.

De acuerdo con el artículo 56 del Decreto Foral Normativo 5/2013, el gasto queda sometido a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del convenio en el ejercicio.

Arabako Foru Aldundiari dagokionez, 50.1.02.G/453500/60900505 partida du kreditu egokiez hornitua aurreikusten dena.

Respecto a la Diputación Foral de Álava, la partida correspondiente será la 50.1.02.G/453500/60900505, que prevé el crédito adecuado.

Alderdien ekarpen ekonomikoek ez dute gaindituko bakoitzak bere lurraldean egindako obren kostu osoa, eta lizitazio-aurrekontua finantzatzeko ezarritako proportzionaltasuna errespetatuko da.

Las aportaciones económicas de las partes no sobrepasarán el coste total de las obras comprendidas dentro de sus respectivos territorios, y respetarán la proporcionalidad establecida para la financiación del presupuesto de licitación.

Horrenbestez, lizitazio-aurrekontu moduan adierazitako zenbatekoaz gain, foru-administrazio bakoitzak konpromisoa hartzen du azken ziurtagiriari dagokion zenbatekoa erreserbatzeko eta ordaintzeko, ezarritako proportzioan eta aplikatu beharreko araudiaren arabera izapidetu ondoren.

De tal manera que, además del importe señalado como presupuesto de licitación, cada administración foral se compromete a reservar y pagar el importe correspondiente a la certificación final en la proporción establecida y tras su correspondiente tramitación de conformidad con la normativa aplicable.

Azken ziurtagiriari dagokion zenbateko gehigarria eta horren banaketa honako hau da:

El importe adicional correspondiente a la certificación final y su reparto es el siguiente:

| ERAKUNDEA<br>ORGANISMO | HANDIPENA<br>AUMENTO |
|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Bizkaia | 53.159,41 € |
| Arabako Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Álava | 54.761,92 € |
| **GUZTIRA BEZa barne<br>TOTALES IVA incluido** | **107.921,33 €** |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, dokumentu hau sinatu baino lehen, aurrekontu-kreditu egokiak onartuak daude aurrekontu-izendapena dago 2025ko ekitaldiko hurrengo aurrekontu partidaren kargura:

Ekonomikoa: 62106
Programa: 453113
Zentro kudeatzailea: 1003
APE: 2008/0062

Respecto a la Diputación Foral de Bizkaia, están aprobados con anterioridad a la suscripción del presente documento, los créditos presupuestarios oportunos, existiendo consignación presupuestaria, en el ejercicio 2025 con cargo a la siguiente partida Presupuestaria:

Económico: 62106
Programa: 453113
Centro Gestor: 1003
PEP: 2008/0062

Era berean, bi administrazioek, eta adierazitako proportzioan, konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau gauzatzearen ondoriozko gainerako aurrekontu-gehikuntzak edo eragin ekonomikoa duten gorabeherak gastu egozgarri gisa ordaintzeko, bereziki behin berme-epea igarota eta eraikitakoa konpondu ondoren hala badagokio obra-kontratuaren likidaziotik eratorritakoak. Eragin ekonomikoa duten igoera edo gorabehera horien zenbatekoak ezin izango du gainditu hasieran aurreikusitako kredituaren % 5, betiere gastu horiek berme-epean eta, gehienez ere, beste 6 hilabeteko epean sortu badira. Bestela, hitzarmenaren aldaketa izapidetu beharko da.

Así mismo, ambas administraciones, y en la proporción señalada, se comprometen a costear, como gastos imputables, los demás incrementos presupuestarios o incidencias con repercusión económica derivadas de la ejecución de este convenio, en especial, las derivadas de la liquidación del contrato de obras, una vez transcurrido el plazo de garantía y tras la reparación de lo construido, en su caso. El importe de estos incrementos o incidencias con repercusión económica no podrá superar el 5% del crédito inicialmente previsto, y siempre y cuando los citados gastos se hayan generado durante el plazo de garantía y, como máximo, hasta el plazo de 6 meses más. En otro caso, será necesario tramitar la correspondiente modificación del convenio.

Hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastutzat joko dira eta alderdien finantza-ekarpenen bitartez finantzatu ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten gastuak: behar bezala justifikatuak izatea, indarra duen araudiarekin bat etorriz; ordainduta egotea hitzarmenaren likidazioaren egunean; beharrezkoak izatea eta zalantzarik gabe bat etortzea hitzarmenaren xedearen izaerarekin eta garapen normalarekin.

Se considerarán gastos imputables derivados de la ejecución del convenio, susceptibles de ser financiados por las aportaciones financieras de las partes, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, están pagados a la fecha de liquidación del convenio, son necesarios y responden de manera indubitada a la naturaleza y al normal desarrollo del objeto del convenio.

Bizkaiko Foru Aldundiak Arabako Foru Aldundiari egin behar dizkion ordainketak egiaztatzen duen dokumentazioa (ziurtagirien kopia konpultsatua) aurkeztu ondoren burutuko dira. Hala, lehenengoak Arabako Foru Aldundiari ordaindu beharko dio hilabeteko epean, arestian aipatu den dokumentazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Los abonos a realizar por parte de la Diputación Foral de Bizkaia a la Diputación Foral de Álava se harán efectivos, previa presentación de la documentación acreditativa (copia compulsada de certificaciones), quedando aquélla obligada a su ingreso en la Diputación Foral de Álava en el plazo de un mes desde la recepción de la documentación anteriormente indicada.

## 2.- ARAUBIDE JURIDIKOA

## 2.- RÉGIMEN JURÍDICO

Hitzarmenaren aldaketa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 49 g)

La modificación del convenio se ajusta a lo previsto en el artículo 49 g) de la Ley 40/2015 de Régimen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

artikuluak xedatzen duena betetzen du.

Jurídico del Sector Público.

Era berean, hitzarmen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuak, Bizkaiko lurralde historikoko aurrekontuei buruzko araudi orokorra onetsi eta aurrekontuaren arau orokorrari dagokion testu bateratua garatzen duenak, 44. eta 46. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Así mismo, cumple con los requisitos establecidos en el art. 44 y 46 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma General Presupuestaria.

Azkenik, aldaketa honek hitzarmenaren seigarren klausulan xedatutakoa betetzen du.

Por último, esta modificación cumple lo estipulado en la cláusula sexta del convenio.

Hitzarmena garatu eta burutu bitartean aldeen artean sortzen diren eta bosgarren klausulan ezarritako Jarraipen eta Kontrol Batzordean ezin ebatzi daitezkeen auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren menpe jarriko dira, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatu denarekin bat.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la Cláusula Quinta se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

Hitzarmen honetan xedatu ez den orori dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea, aurrekontuaren foru arau orokorraren testu bategina onetsi duen abenduaren 3ko 5/2013 Arau Dekretua eta bere erregelamendua, baita aplikatu beharreko beste edozein xedapen ere aplikatu beharko dira.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Eta adostasunaren lekuko, hitzarmen hau sinatuko dute goiburuan adierazitako tokian eta datan.

Y en prueba de conformidad, firman la presente modificación del Convenio en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN IZENEAN
POR LA DIPUTACION FORAL DE ÁLAVA,

Jon Nogales Prieto

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN IZENEAN
POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA,

Carlos Alzaga Sagastasoloa

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9L4N-WJYT-A2FS-ZNLZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus